

M E M O R I A

20

20



BURU OSASUNEKO ARAZOAK DITUZTEN PERTSONEN ETA SENIDEEN GIPUZKOAKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE FAMILIARES Y PERSONAS CON PROBLEMAS DE SALUD MENTAL

Contenidos

4	NOR GARA
6	PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK
6	Harrera programa
7	Errehabilitazio psikosozialerako zentroak
8	Tutoretzapeko etxebizitzak
9	Laguntza psikosozial komunitarioa
10	Familiarteko esku-hartze programa
10	Senideen laguntza-taldeak
11	Senideei eskainitako arreta indibiduala
12	Senideei zuzendutako prestakuntza
13	Buru nahasmendua duten pertsonekin esku-hartzea
13	Buru nahasmendua duten pertsonen laguntza-taldeak
14	Buru nahasmendua duten pertsonen eskainitako banakako laguntza
14	psikologikoa
14	Hurbilduz programa
15	Elkarrekiko laguntza programa
15	Sozializazio-programa
17	Ekonekazaritza etxaldea eta laneratze zentro berezia: Karabeleko
19	BOLUNTARIOTZA
21	SENTSIBILIZAZIOA
22	AGIFESEKO TALDEA
23	LANKIDETZA ETA ALIANTZAK
24	ENTITATE LAGUNTZAILEAK

Aurkezpena

Agifes (Buru osasun arazoak duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarte) irabazi-asmorik gabeko entitatea da eta 1985ean sortu zen buru nahasmendua duten pertsonak gizarteratzen eta komunitatean barneratzen laguntzeko; kalitatezko zerbitzuak aldarrikatzeko (gizarte, lan eta osasun arloetan) eta buruko patologia larriak dituzten pertsonen eta senideen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko. Programa pertsonalizatuak eta zentro espezializatuak kudeatzen ditugu buru osasun arazoak dituzten pertsonen laguntzeko.

Agifes Fedafesen (Buru osasun arazoak duten pertsona eta senide elkar-teen Euskadiko federazioa) eta Salud Mental Espa-

ña konfederazioaren barne dago, eta azken hori Europako Federazioaren (EUFEMI) kide fundatzailea da, bai eta Eskizofreniaren Mundu Elkartearen (WSF) zein Osasun Mentalaren Mundu Federazioaren (WHMF) kidea ere.

Gainera, Agifes Gipuzkoako SARGI plataformaren barne dago. Erakunde hori esparru sozialeko 21 entitatez osatua dago.

GURE EKINKIZUNA

Gipuzkoako gizartearen osasun mentalaren hobekuntzan aktiboki laguntzeaz gain, elkarte buru-osasun arazoak dituzten pertsonen autonomia eta garapen pertsonala lortzeko lanean ari da, haien errekupeazioa eta gizarteratzea bultzatuz.

Senide eta zaintzaileei ere babesa ematen diegu.

Era berean, prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak burutzen ditugu, buruko osasun arazoaren inguruko ezagutza soziala zabaltzeko

eta gure kolektiboari eragiten dioten aurreiritziak gainditzeko.



ZUZENDARITZA BATZORDEA

Lehendakaria: Vicente Areta Santamaría

Lehendakariordea: Teresa Pérez - Rubio

Idazkaria: Rosalía Sánchez Ciganda

Diruzaina: Víctor Vallejo Cihuelo

1. batzordekidea: Ramón Apellaniz Azpitarte

2. batzordekidea: Gurutze Otamendi Carrera

3. batzordekidea: Mercedes Guerrero Odriozola

4. batzordekidea: Elena Pérez San José


5. batzordekidea: José Miguel Ansa Iriberry

6. batzordekidea: Álvaro Solano

BAZKIDEAK

👤 ZK 977 ↑ 64 IZEN-EMATE ↓ 44 BAJA

BAZKIDEEN JATORRIA



- Bidasoa Behera (10,5%)
- Buruntzaldea (8,5%)
- Debaldea (12,8%)
- Donostialdea (39,9%)
- Goierri (5,1%)
- Nafarroa (0,1%)
- Oarsoaldea (10,9%)
- Tolosaldea (4,4%)
- Urola Kosta (5,9%)
- Urola Erdia (0,4%)
- Besteak (1,5%)

AGIFESEN ZERBITZU ETA PROGRAMAK



1

HARRERA, INFORMAZIO ETA ORIENTAZIO PROGRAMA

Gure gizarte-langilearen eskutik.



2

FAMILIENTZAKO LAGUNTZA PROGRAMAK

Laguntza-taldeak.
Banakako laguntza psikologikoa.
Tailerrak, ikastaroak eta
hitzaldiak.



3

BURU OSASUNEKO ARAZOA DUTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZA PROGRAMAK

Laguntza-taldeak.
Banakako laguntza psiko-
logikoa.
Elkarrekiko laguntza.
Hurbilduz.



4

ELKARTEKIDEAK, PREBENTZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Sentsibilizazio-programa.
Batzordeak.
Boluntarioritza.
Prebentzioa: 'Zeuk Aukeratu'

5

BIZITEGI- BALIABIDEAK

Ikuskapen-maila baxuko 9 etxebizitza, 43
plazarekin: Irun (3), Oiartzun, Astigarraga,
Zumarraga, Eibar, Elgoibar.

Ikuskapen-maila ertaineko etxebizitza, 10
plazarekin: Beasain.

Autonomia sustatzeko etxebizitza, 3 plazarekin:
Intxaurren.



6

BURU OSASUNEKO ARAZOA DUTEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO PROGRAMAK

Errehabilitazio psikosozialeko zentroak: Donostia (2), Eibar
(1).

Sozializazio programa: oporraldiak, Aisialdi eta
Denbora Libreko Kluba.

Autonomia sustatzeko programa.

Karabeleko programa: ekonekazaritza etxaldea
eta Enplegu Zentro Berezia.



7

ZERBITZU JURIDIKOA

Fedeafesek eskainitakoa,
buru osasuneke arazoa
duten pertsona eta senide
elkarteen federazioak.




Harrera zerbitzuak

ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA

👤 247 75 SEGIMIENDU


ESKAERAK



DERIBAZIOAK



PROGRAMAK ETA DERIBAZIOAK



Harrera programa buru osasun arazoa duten pertsoneri eta beren senide edota zaintzaileei zuzendua dago. Zerbitzu horren helburua da interesa dutenei baliabide sanitario, sozial eta ekonomikoen berri ematea eta horietara gerturatzea. Gainera, senide eta zaintzaileek buru gaixotasunaren inguruan izan ditzaketen zalantzak argitu nahi ditugu, baita aholkuak eman eta beharrei zein eskaerei erantzun ere.

Horrela, programaren xede orokorra da informazioa ematea, aholkularitza eskaintzea eta beharrei erantzutea, eskaera bakoitzaren arabera. Agifesek eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko informazioa emateaz gain, orientazioa ere eskaintzen dugu eta inguruko

zerbitzu osagarrien berri ematen diegu.


Harrera-zerbitzua erabiltzaileak elkartearekin duen lehendabiziko harremana da, aurrerago bestelako zerbitzuetan parte hartu ahal izateko.

Programa gizarte-langile batek bideratzen du, Donostiako Morlans pasealekuko 3. zenbakian kokatzen den egoitzan. 2012an, 3 gune berri sortu ziren harrerak egiteko, biztanleriarengana gerturatzeko helburuarekin. Horrela, eskaeraren arabera, gizarte-langilea Azpeitira, Bergarara edo Eibarrera hurbiltzen da hilabetean behin.

SEXUA



ADINA



Errehabilitazio psikosozialerako zentroak

Agifeseko errehabilitazio psikosozialerako zentroak Gipuzkoako Foru Aldundiak buru nahasmendua duten pertsonen arretara bideratutako baliabide-sarearen barne daude. Buru osasun arazo larria duten pertsonen arreta egokia eta integrala emateko zerbitzuak dira. Laburbilduz, erabiltzailearen buru osasuna hobetzeko helburua duen zerbitzua da. Nahasmenduaren tratamendua, ezgaitasunen errehabilitazioa, arreta koordinatua eta arreta sozio-komunitarioa dira zentro hauen jo-

mugak. Zentroen helburu orokorra buru osasun arazoa duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, baita euren bizitzaren ardura hartzen eta euren komunitatean autonomia handiarekin eta aktiboki moldatzen laguntzea ere. Helburu espezifikoaren artean, erabiltzaileen gaitasun psikosoziala eta sare sozioafektiboa hobetzea daude. Era berean, banakako beharrei oinarri sozial egokia ematea dute helburu gune hauek. Agifesek hiru zentro ditu, bi Donostian eta bat Eibarren.




ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA

ZK 95 84 PLAZA

SEXUA
 ♀ 23 ♂ 61


ADINA
 18-30 (1) · 31-50 (46) · 51-65 (37)

JATORRIA



- Donostialdea (43,3%)
- Oarsoaldea (14,6%)
- Urola Kosta (1,3%)
- Buruntzaldea (5%)
- Goierri (2%)
- Deba Behera (29%)
- Deba Garaia (1,3%)
- Tolosaldea (1,3%)
- Bidasoa Behea (1,3%)

DIAGNOSTIKOA



- Esquizofrenia (80,66%)
- Nortasunaren nahasmenduak (8,96%)
- Gogo-aldarteen nahasmenduak (6,63%)
- Besteak (3,75%)

Tutoretzapeko etxebizitzak

Agifeseko tutoretzapeko etxebizitzak Gipuzkoako Foru Aldundiak buru nahasmendua duten pertsonen gizarte-arretara bideratutako baliabide-sarearen barne daude.

Baliabide honek laguntza eskaintzen die buru nahasmendu larria duten pertsoneri, haien jardura psikosozialak haien behar batzuk betetzea eragozten edo egonkortasun psikopatologikoa lortzea zailtzen badu.

Agifesek 56 pertsona biltzen dituen 9 etxebizitza ditu, eta banakako nahiz taldeko arreta jasotzen

dute bertan bizikideek.

Modu honetan, pertsona bakoitzaren garapen-maila eta autonomia bultzatu nahi dira etxebizitzan, elkarbizitzan eta gizarteratzean.


Etxebizitzan helburu nagusia etxe bat eta laguntza nahikoa eskaintzea da, osasun mentalaren arazoak eguneroko bizitzan duen eragina arintzeko eta ahalik eta autonomia handiena lortzeko. Helburu hori lortzeko, banakako laguntza eskaintzen da, pertsona bakoitzaren beharretara egokitua. Egonkortasun kli-

nikoa, medikuarengana joatea, botikak hartzea edo toxikorik ez hartzea errazteko laguntza eskaintzen dugu.

Oinarrizko etxeko-lanak gauzatzen ikasten dute (garbiketa, erosketa, kozinatzea, eta abar) baita bizikidetzak kudeatzen ere: arazoak konpondu, egoki komunikatu eta oinarrizko elkarbizitza-arauak bete.




DIAGNOSTIKOKA



- Esquizofrenia (46)
- Desoreka eskizoafektiboa (6)
- Nortasunaren nahasmenduak (4)
- Nahaste bipolarra (1)
- Besteak (3)

ERABILTZEN DITUZTEN BALIABIDEAK




- CRPS/CD (29)
- Babestutako enplegua (10)
- Lan okupazionala (19)
- Aisialdia eta denbora librea (2)

PISUAK


GAINBEGIRATZE BAXUA (43)

Astigarraga
Oiartzun
Irun: 2 (horietako bat emakumeentzako bakarrikzuzendua)
Zumárraga
Eibar
Elgoibar



ERDI-MAILAKO GAINBEGIRATZEA (10)

Beasain



AUTONOMIA (3)

Intxaurrenondo

Laguntza psikosozial komunitarioa


Komunitatean autonomiaz moldatzeko laguntza psikosozialeko programa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika departamentuarekin batera finantzatua dago. 1977an jarri zen martxan, buruko osasun arazoa zuten pertsonen egunerokotasuneko hezkuntza- eta arreta-beharrak asetzeko baliabide instituzionalik ez zegoela ikusita.

Esparru horretan beharrezkoa da Agifesen laguntza komunitarioa izatea, bi mailatan jarduten baitu:


- Etxebizitzan gizarte-eta komunitate-laguntza eskaintzea, erabiltzaileek euren etxeetan edo familiaratean bizi dituzaketen arrisku egoerak, marjinazioa edota instituzionalizazioa ekiditeko helburuarekin.
- Beharrezkoa duten erabiltzaileei buru osasuneko zerbitzu-sarearekiko, gizarte-langileekiko eta gainontzeko baliabideekiko lotura hobetzen laguntzea, euren egoera eta bizi-kalitatea hobetzeko eta euren familiari laguntza eskaintzeko xedearekin.

Esku-hartze egokia burutze aldera, buru osasuneko zerbitzu-sarearekin koordinatu eta haiekin batera egiten dugu lan.

JATORRIA



DIAGNOSTIKOA



ERABILTZEN DITUZTEN BALIABIDEAK



Familiarteko esku-hartze programak


PARTE- HARTZAILEAK

ZK 106 TALDEAK 9

Gaur egun, udalerrri hauetan garatzen dira taldeak:

- Azpeitia
- Bergara
- Donostia
- Eibar
- Irun

JATORRIA



SENIDEEN LAGUNTZA-TALDEAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika departamentuarekin batera finantzatutako programa honek buruko osasun arazoak dituzten pertsonen senideei laguntza egokia emateko esku-hartzea burutzea du helburu. Talde hauek norbere burua zaintzeko beharrezkoak diren baliabide psikologikoak eskaintzen dituzte, baita nahasmendua duen senideari era egokian laguntzeko tresnak ere.


Horrez gain, taldeak leku egokiak dira bakoitzak bere burua hiritar eta

seniarteko moduan aldarrikatzeko. Gainera, jendeak buruko nahasmendua duen pertsonarengandik duen irudia birmoldatzen laguntzen dute.


Laguntza taldeek ez dute soilik senideen laguntzaile rola errazteko balio, baizik eta familiako kide guztien osasuna eta autonomia bermatzeko ere.

Gainera, familia talde batzuek, beren kideen araberak, izaera bereziagoa dute, hala nola gazteen gurasoena edo familia anitzekoa, zeinera bikoteak edo anai-arrebak joaten baitira, besteak beste.

SEXUA



ADINA



SENIDEEI ESKAINI-TAKO ARRETA INDIBIDUALA

Senideek laguntza pertsonalagoa eskatzen dute zailtzak argitzeko, arazoak eta krisi-egoerak kudeatzen ikasteko edota buru nahasmendua duen familiako kidearekin bizikidetzak hobetzeko. Emozio gutxiko giro jakin batean bizitzen ikatea da prozesu terapeutikoetan eragin positiboa duen aldagai kliniko garrantzitsuenetako bat.



Familiak buru osasun arazoarekin bizitzen ikatea da senideekin lan egiten duten profesionalen eginkizun nagusia.

Batzuetan, pertsonak banakako arreta behar izaten du barnean duena kanporatzeko, baita errealitateira moldatzeko jarraibideak barnerratzeko ere.


Askotan, laguntza hori laguntza talde batean parte hartu aurretik ematen da; beste batzuetan, berriz, senitartearen krisia, senideen arazo psikologikoak edo, besterik gabe, laguntza-talde batean parte hartzea bateraezintasun pertsonalak direla eta.




JATORRIA



SEXUA



ADINA




Senideentzako tailerra: 'Hurbil zaitez buru-osasuneko arazoetara'


Prestakuntza tailerrak egokiak dira senideak informazioa jaso eta egiaztatzen. Identifikatutako senideari buruzko ikuspegi zabalagoa emateko eta norberak familian duen zereginaz jabetzeko bidea da. Hori talde-formatu laburrean egin ahal izateak informazioa berdinen artean kontrastatzeko eta, aldi berean, talde-esperientzia bat bizitzeko aukera ematen dio pertsonari. Tailer-mota

hauek garrantzitsuak dira, aldakorrak direlako; egokia da talde-laguntza jarraitua eman aurreko espazio gisa, banakako esku-hartze psikologikoa zabaltzeko eta, oro har, familia-arazoaz jabetzeko.


2020an bi tailer egin dira, eta 22 pertsonak hartu dute parte hurrengo ezaugarriekin:



TALDEA	HERRIA	PARTE-HARTZAILEAK	BATEZ BESTEKO ASISTENTZIA
1	Donostia	11	11
2	Donostia	11	9



- Donostialdea (41%)
- Oarsoaldea (9%)
- Bidasoaldea (23%)
- Urolaldea (18%)
- Goierri (5%)
- Buruntzaldea (5%)



Buru nahas- mendua duten pertsonekin esku-hartzea


BURU NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEN LAGUNTZA-TALDEAK

Horrelako taldeen eraginkortasuna asko aztertu da eta frogatu da taldearentzat garrantzitsua dela buru osasuneko arazo bera duten beste pertsona batzuekin esperientziak partekatzea. Izan ere, buru osasun arazoa duen pertsonak harremanetarako eta emozioak adierazteko gaitasuna lantzen dituzte talde hauetan. Gainera, estigmari aurre egiten, osasun mentalari buruz ikasten, gizarte eta komunikazio gaitasunak hobetzen eta, krisialdiak ekidite aldera, sintomatologia hobeto ezagutzen laguntzen dute taldeek.


2020an, bi laguntza-talde burutu dira Donostian: bat nahasmendu bipolarra dutenentzat eta bestea depresioa dutenentzat. 31 pertsonak hartu dute parte, ezaugarri hauekin:

TALDEA	HERRIA	PARTE-HARTZAILE
1	Donostia A	21
2	Donostia B	11


JATORRIA



SEXUA



ADINA





BURU NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEI ESKAINITAKO BANAKAKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Askotan, buru osasun arazoa duten pertsonak banakako laguntza jasotzeko guneak eskatzen dituzte, euren burua oraindik laguntza talde batean sartzeko prest ikusten ez dutelako edo bizitzaren

momentu horretan bakarkako arreta behar dutelako. Garrantzitsua iruditzen zaigu pertsona horiek banaka ardatzea, euren egoeraz jabetzen eta erabakiak modu autonomoan har ditzaten la-

guntzeko. Hain zuzen, pertsona hauen ahalduntzea indartzeko lan egiten dugu.

2020an 28 lagun artatu dira. Bildutako datuek ezaugarri hauek dituzte:



HURBILDUZ PROGRAMA

Depresio-sintomak edo bestelako arazo psikikoak dituzten pertsonak ardatzeko helburua duen egitasmoa da Hurbilduz. Agifesez hauteman duen beharraren ondorioz jaio da programa hau, gero eta pertsona gehiago bertaratzen baitira elkartera laguntza eske. Gainera, depresioaren intzidentzia handia da.

Programaren helburua gizarte-sarrikerik ez duten pertsonak identifikatu

eta eurengana hurreratzea da, euren egoeraren ebaluazioa egin, laguntza eta konpainia eskaini eta sentimenduez nahiz emozioez hitz egiteko, adibidez. Era berean, hartu-eman sozialak errazteko laguntza jasoko dute zerbitzuaren erabiltzaileek, baita kudeaketa burokratikoak, medikuari bisitak, erosketak edo bestelako zereginak gauzatzeko ere. Gainera, pertsona horiek gizarte eta osasun sareetan eta komunitatean sartzeko xedearekin, gizarte-eragileek behar terapeutikoak

antzemateko eta horiei aurre egiteko tresnak eskuratuko dituzte.

Esku-hartzea erabat indibidualizatua izango da eta diziplina anitzeko taldeek gauzatuko dute, psikologoek, gizarteratze-teknikariak, gizarte-lan-gileen eta elkarrekiko laguntza-eragileek elkarlanean oinarrituz.

SEXUA



ADINA




Elkarrekiko laguntza programa

Elkarrekiko laguntza programa aitzindaria da Gipuzkoan eta buru osasuneko arazoak izan eta gainditu duten pertsonen gidatutako proiektua da. Elkarrekiko laguntza eskaintzeko prestakuntza jaso ostean, ekimena honen gidariek buru nahasmendua duten pertsonen errekerperazio-prozesuan parte hartzen dute.

Programaren zutabeetako bat ahalduntzea bultzatzea da eta buru osasun arazoak dituen pertsona bere osatze-prozesuaren gidari izateko gai sentiaraztea. Izan ere, pertsona batzuentzat errekerperazioa aurkikuntza eta hobetze

prozesua izan daiteke; buru nahasmendua atzean utziz bizitza berria hasteko aukera, hain zuzen. Osatzea edo errekerperazioa zentzu honetan ulertzen dugu: pertsonarentzat pozgarria eta zentzuzkoa den bizitza proiektu baten eraikuntza, eurak erabakitako planaren arabera eta sintomen eta arazoaren eboluzioarekin zerikusirik ez duena.

Metodologiari dagokionez, Agifes elkarteko profesional taldearen laguntza eta ikuskapena duen eragilearekin 10-12 saio individual eskaintzen dira.




Sozializazio-programa

Sozializatze eta komunitatean laguntza jasotzeko programaren helburua buru nahasmendua duten pertsonen duten gizarte-sare faltari erantzuna ematea da. Izan ere, programa honen bitartez, laguntasun haurremanak eraikitzen dituzte.

Loiolan zentro bat dugu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika departamentuaren laguntzarekin finantzatua dago zerbitzu hau.

Aurten 53 pertsoni eskaini zaie laguntza.



Aurten, pandemiak sortutako egoera eta talde mailan sortutako murrizketak direla eta, maiatzetik aurrera progra-

maren egitura egokitu behar izan dugu, burbuila talde itxietan lan eginez eta sarrrera eta irteera ordutegi desberdinekin:

bi talde goizean eta bat arratsaldean. 2020rako aurreikusitako koloniak ere ezin izan ditugu antolatu.

2020an ANTOLATUTAKO JARDUERAK	
JARDUERAK	IRTEERAK
Sukaldea	Konsumobide tailerrak
Karaokea	Tabakalera
Bideo foruma	Txangoak Gipuzkoako herri ezberdinetara
Gaurkotasuna	Koldo Mitxelena
Ibilaldiak	Cristina Enea
Marrazkigintza / eskulanak	Aquarium
Jarduera ludikoa	Kursaaleko erakusketak
Talde-dinamikak	San Telmo museoa
Irakurketa	Zinemaldia
Gorputz adierazpena	Bizilekuetako kultur etxeak
Estimulu kognitiboa	Frontoia
Padel	Loiolako hipika
Igeriketa	Kaxilda
Spinning	Tecnalia
Futbola	Planetarium
Zinema	Diario Vasco
Abesbatza	
Antzerkia	
Irratia	

Ekonekazaritza etxaldea eta laneratze zentro berezia: Karabeleko


Hernaniko Karabeleko ekonekazaritza etxaldean buru osasun arazoa duten pertsonen errehabilitazio psikosozialerako programa gauzatzen da. Agroekologiaren alde lanean dihardu Karabeleko irabazimorik gabeko elkarteak, eta Agifes, Blasenea eta Kimubat Taldea dira proiektuaren bultzatzaileak.

Programa honen barruan, buru osasun arazoak dituzten pertsonen errehabilitazioa eta gizarteratzea bultzatzeko hainbat ekimen sustatzen ditugu, baita autonomia eta garapen pertsonala lortzeko ere.

Horretarako, gure kolektiboaren beharretara egokitutako hiru taldetan banatzen da Karabelekoren egitura: okupazionala, laborala eta errehabilitazioa.


Erabilzaileek etxaldeko kudeaketarekin eta baratzearekin loturiko hainbat jardueretan parte hartzen dute, baita kontsumo talderako otarren prestaketan ere. Era berean, lan-munduan txertatzeko jarduerak burutzen dituzte eta, horri esker, batzuek aldizkako kontratuak lortzen dituzte lan karga handitzen den garaian.

Hain zuzen, 2020an hiru lan-kontratu egin ziren Karabeleko lan-taldean sartzeko.



- Donostialdea (13%)
- Oarsoaldea (1%)
- Tolosaldea (4%)
- Bidasoa Behera (4%)
- Bruntzaldea (3%)
- Urola Kosta (1%)
- Goierri (1%)

ADINA



SEXUA



2020an BURUTUTAKO JARDUERAK	
NEKAZARITZA JARDUERAK	ANTOLAKETA JARDUERAK
Barazkiak hartu	Erosketa
Plastikozko multch-a kendu eta jarri	Erosketaren antolaketa
Belar gaiztoak kendu	Bazkaria prestatu
Lurra prestatu	Sukaldea
Otarrak banatzen lagundu	Errezetak
Barazki eta aromatikoek landaketa	Aldagelen garbiketa
Barazki eta landare aromatikoek lekualdatzea	Aldagelen antolaketa
Barazki uzta	Garbitegia
Landareen garbiketa	Guztion eremuen garbiketa
Otarrak prestatu	
Landare apaingarriak landatu	
Landare apaingarriak transplantatzea	
Dendaren garbiketa eta antolaketa	
Dendaren hornitzea	
Biltegiaren garbiketa	
Laborantzako mahai mugikorren garbiketa	
Material begetalaren konpostaketa	



BOLUNTARIOTZA




- PCEM (52%)
- Jubilatua (7%)
- Ikasleak (7%)
- Senideak eta bazkideak (13%)
- Beste batzuk (20%)

SEXUA



♀ 22 ♂ 32

ESKAERAK



2014an abiarazitako programa honi esker, interesa dutenak boluntario gisa jardun daitezke gure elkartean. Gizalderekin, Gipuzkoako Boluntariotza taldearekin, koordinatzen gara.

Euren aholkularitza jasotzen dugu eta gure elkartean parte hartzeko interesa duten boluntarioak bideratzen dizkigute.

2020an 54 boluntario izan dira.





JARDUERA EDO PROGRAMA	KOPURUA	%	JARDUEREN IRAUPENA
Sozializazio, aisialdi eta denbora libreko programa	2	4%	2 urte eta erdi
Karabeleko	10	19%	3 urte
Sentsibilizazio batzordea	5	9%	+ 8 urte
Hitzaldiak, tailerrak, eta abar zabaltzen parte-hartu, kartelak banatu...	2	4%	2 urte
Talde-K	35	64%	Hilabete 1
GUZTIRA	54	100%	Gehienezko dedikazioa: + 8 urte

Sentsibilizazioa



2020AN EGINDAKO EKINTZAK

Aurrez aurreko ekitaldi-kopurua murriztu zen 2020an, pandemiaren ondorioz. Programatutako bi ekitaldi baino ezin izan genituen egin.

2020ko OTSAILA Hurbilduz programaren aurkezpena

👤 **75** parte-hartzaileak

2020ko ABENDUA TOCari buruzko Buru Osasuneko Jardunaldia

👤 **50** parte-hartzaile presentzial

👤 **+200** pertson zuzenean konektatu ziren

*Aurrez grabatutako mahai-ingurua ikusi duten pertsonekin, jardunaldiak 1.100 ikuspen baino gehiago ditu.

ONLINE EMAITZAK



172.288 jarraitzaile berriak | **200.505** sesioak | **1' 06"** batez besteko iraupena



1419 harpidedunak | **71313** bistaratzeak | **8:33** batez besteko iraupena



5170 jarraitzaile | **165** like berriak




3422 jarraitzaile | **237000** inpresio




866 jarraitzaile | **171432** Instagram kontuk ikusi dituzte gure argitalpenak | **237126** inpresio

Agifeseko taldea



Lankidetzak eta aliantzak

FUNTSEN JATORRIA



FUNTSEN XEDEA



Entitate laguntzaileak





AGIFES